

# MUSIKARIUM

## MUSIKARIUM ETA ILARGI OLGETAN MUSIKAREN PLANETAN

**Musikarium** ikuskizuna haurrei zuzendutako antzerkia-musika-kontzertu didaktikoa da. Haurrek modu didaktiko eta pedagogiko baten bidez eta musikaren munduan murgilduz, hainbat musika eta musika tresna ezagutuko dituzte eta Euskal Herrikoekin konparatuko dira, hauen desberdintasun eta antzekotasunak azalduz.

**Musikarium** ikuskizuneko protagonista abestea gustuko duen 8 urteko neskatua da, Ilargi du izena. Olentzerok mugikorra oparitu zionetik ez du berarekin ibili besterik egin. Badu dohain berezi bat mugikorrak, gehiegizko erabilerak maite duzun hori kentzen dizu eta Ilargik asko erabili duenez ahotsa galdu du eta ezin du kantatu. Baina Mari Domingik badu eda-be magikoa Ama Lurreko lau osagaiekin egiten dena. Osagaiak kontinente desberdinetan aurkitu beharko ditu Ilargik ahotsa berreskuratzeko. Herrialdeetako hizkuntzak ikasi eta baita musikak ere osagaiak bilatzen dituen bitartean. Kulturak, hizkuntzak, ohiturak ezagutuko ditu eta Euskal Herrikoarekin alderatu. Ilargi ohartuko da hainbat musika tresnen antzekotasunaz. Bidaia didaktiko alaia da Ilargik proposatzen diguna. Ikusle gazteak adi egongo dira musikarekin, marrazki bizidunekin, antzerkiarekin eta aurkezleak kontatuko dituen istorioekin. Berreskuratuko al du Ilargik ahotsa? Kantatuko al du berrir? Ikasiko al du Ilargik mugikorrari erabilerar arduratsua ematen? **Musikarium** ikuskizun pedagogikoak ditu erantzunak.

Gidoia, zuzendaritza artistikoa eta aurkezlea: **Oihan Vega**

Musika sorkuntza eta zuzendaritza musikala: **Xabier Zabala**

Musikariak: **Xabier Zabala, Luis M. Moreno (Pirata),**

**Igor Torre, Igor Telletxea**

Argi eta bideo teknikaria: **Factory Logistica S.L.**

Soinu teknikaria: **Iker Aginaga**

Atrezzoak: **Jesus Uranga**

Munduairen irudia: **Iratxe Maruri**

Irudiak eta animazioak: **UNDO animotion**

Ekoizpen exekutiboa: **Baga-Biga**

